

DROGETEN ITURRI

Ermuko eta Mallabiko aldizkaria. 315 zenbakia. 2022ko urria



**San Martin,
gero eta gertuago**



Aitziber Cortazar, Debegesako Garapen Jasangarria saileko burua:

“Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei”

Debegesak ENERGIA BULEGOA garatu du eta Aitziber Cortazarrek bertan eskaintzen diren zerbitzuen berri eman digu.

Zein da Energia Bulegoaren funtzio nagusia?

Debabarreneko zortzi udalerriek eskaintzen duten zerbitzua da, Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Departamentuak diruz lagunduta, eta zenbait funtzio ditu. Herritarrei zuzenduriko alderdiari dagokionez, eraginkortasun energetikoa sustatzea eta energia berriztagarriak ipintzea dira helburu nagusiak.

Horretarako, zer eskaintzen duzue?

Alde batetik, Debegesaren web orrialdearen barnean Energia Bulegoaren atala dago: energia.debegesa.eus. Energia berriztagarrien (panel fotoboltaikoak, panel termikoak, geotermia, aerotermia eta biomasa) eta birgaitze iraunkorraren (teilatua birgaitzea, igogailua instalatzea edo aldatzea, berogailuen instalazioa...) inguruko oinarritzko informazioa modu didaktikoan jaso daiteke bertan. Gainera, faktura elektrikoa optimizatzeko aholkularitza zerbitzua eskaintzen dugu.

Webguneko informazioaz gain, norbanakoek euren kasu zehatzen inguruko zalantzak argitu dezakete?

Bai. Horretarako bi bide ditugu. Batetik, webgunearen bitartez gurekin harremanetan jarri daitezke inprimaki batzuk betez eta argitu nahi den gaia zehaztuz. Bestetik, 943 82 01 10 telefonora deituta hitzordua eskatu daiteke Debegesan, edota email bitartez kontsulta bideratu: agenda2030@debegesa.eus

Energiaren gaia ahoz aho dabil. Garrantzi berezia hartu du gaur egun Energia Bulegoak?

Debegesak aspaldi landu ditu energiaren inguruko gaiak eta, eboluzio naturalari jarraituz, gaur egungo egoerarekin egin du bat. Energiaren prezioak nola dauden ikusita, egia da orain dela urtebete inork egingo ez lituzkeen planteamenduak egiten ari direla orain. Zentzu horretan, Energia Bulegoak lehen pausoak ematen lagundu nahi die erabiltzaileei. Esate baterako, komunitate bateko bizilagunek eguzki-plakak instalatu nahi badituzte, zein pauso eman behar



Aitziber Cortazar Debabarreneko Garapen Agentziako Turismo eta Garapen Jasangarria saileko arduraduna da.

duten argitzen diegu, dirulaguntzen inguruko informazioa eskaintzen dugu, tramitazio legalaren ingurukoa... Horretarako, laguntze aldera, kontsulta egiten dutenen aldetik ahalik eta informazio gehien jasotzea komeni da, gero eta erantzunik zehatzena emateko.

Enpresentzako zerbitzuak eskaintzen dituzue?

Bai. Esate baterako, energia fotoboltaikoa ekoizteko duten gaitasuna neurtzen diegu. Azken urtean, 30 enpresa baino gehiagok erabili dute zerbitzua. Orain, turismo sektoreko enpresei energia analisi auditoretza egitea eskaintzen ari gara, energia berriztagarriak ipintzeko zein aukera izan ditzateketen ikus dezaten.

ARGITARATZAILEA:

Euskal Birusa
Elkarte Kulturala.

HELBIDEA:

Erdikokale zeharbidea 2, 1.
247 posta-kutxa
943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com
www.euskalbirusa.eus

ERREDAKZIO TALDEA:

Estibalitz González,
Nahia Ruiz Albizuri,
eta Dorleta Vidal.

KOORDINAZIOA**ETA MAKETAZIOA:**

Dorleta Vidal.

AZALEKO ARGAZKIA:

Maddi Goikoetxea.

LAGUNTZAILEAK:

Antonio Hernández 'Cuco',
Patxi López,
Valentin Mugarza,
San Lorenzo eskola
eta Jabi Vidal.

ARGAZKIAK:

Lorea Arregi,
Óscar Blanco,
Estibalitz González,
Valentin Mugarza,
Orihen,
Nahia Ruiz Albizuri,
San Lorenzo eskola,
Mikel Taboada
eta Dorleta Vidal.

PUBLIZITATEA:

943 17 93 50 / 688 63 28 76
drogeten@gmail.com

INPRIMATEGIA:

Gertu Koop. (Oñati).

BANAKETA:

Maren Agirre,
Piedi Eizagirre
eta Koldo Narbaiza.

TIRADA:

2.425 ale.

ISSN:

1133-973X.

LEGE GORDAILUA:

SS-213/1994.

*Drogeteniturrrik ez du
bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako
iritzien erantzukizunik.*

Bertoko kantuak

Herritarron ahotik

Gaia: Saski-naski

Domurun Santuru

(Entzuteko: www.alboka.es)

Domurun Santuru
Santuru,
umia zuluana
sarturu.

Aitxa dolorez,
ama negarrez,
abadia kantetan
errialaren pozez.



Hilabete honetan...

GURETIK MUNDURA..... 4 Ainhoa Piñeiro (Alemania)	KIROLZALE 16 Miguel Ledesma triatloian
ELKARRIZKETA5-7 Orihen musika taldea	ESKOLEN TXOKOA..... 17 San Lorenzo eskolako berriak
MALLABIAN ZER? 8-9 II. Film Laburren jaialdia	IRITZIA..... 18 Mahaien boterea (Jabi Vidal)
ERREPORTAJEA 10-11 Dioni Ardanza jostuna	BOTEPRONTOAN 19 Miriam López
MOTZEAN 12 Almu Maesoren erakusketa	ANTZINAKOAK 20 Ermuko eta Mallabiko argazkiak
ERMUAN ZER? 13 Mikologiaren lagunak Elkartea	ZORION-AGURRAK..... 21 Saldu, erosi edo agurtu
ERREPORTAJEA 14-15 Wikiemakumeek Durangon egitasmoa	AZAROKO AGENDA 22

Ondorengo erakundeek diruz lagundutako aldizkaria:



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA



MALLABIKO UDALA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Ainhoa Piñeiro Alberdi

Alemaniarra joan zen Ainhoa Piñeiro ermuarra Gradu Amaierako Lana egitera, eta azken bi urteak bertan eman ditu. München eta Berlinen artean, azken hiri honen aldeko apustua egin du, eta bertan dihardu lanean.

- Noiz joan zinen Alemaniara?

Orain dela ia bi urte etorri nintzen. Enpresa batera joan nintzen, Munichera, Gradu Amaierako Lana zela-eta. Intentsibo bat zen, ordaintzen zuen bakarrenetarikoa. Uztailera arte egon nintzen bertan eta asko gustatu zitzaidan, beraz, han geratzea pentsatu nuen. Hala ere, Berlinera joan nahi nuen, baina neguak hotzak direnez bertan, München geratu nintzen martxora arte, eta Berlinera etorri nintzen gero. Hemen bizi naiz orain.

- Erabaki erraza izan zen?

Beno, banuen gogo pixka bat etxetik irteteko. Pandemia garaia zen, eta pentsatzen nuen ezin izango nuela egin, baina azkenean kontuak aurrera egin zuen. Joateko erabakia ez zen zaila izan, azken finean zortzi hilabete eta gero Ermura bueltatzeko asmoa nuen. Baina horren gustura egon nintzen geratzeko gogoak sortu zitzaizkidal! Izan ere, Berlin pixka bat ezagutzen nuen, eta hori ere joateko arrazoietakoa bat zen. Gaur egun jarraitzen dut oraindik ere gauza berriak topatzen, eta asko estimatzen dut hori.

- Nolakoak dira aipatu dituzun bi hiri horiek?

Munich nire ustez nahiko *pijota* da, baita garestia ere, eta nahiz eta oso ondo pasatu nuen ez zegoen nik bilatzen nuen giroa. Berlin aurretik ezagutzen nuen, eta asko gustatzen zait. Historia asko du eta badaude mugimendu ezkeriar anitzak ere, kultura eta arte mundu zabala duelarik ere. Nahi den erara bizi daiteke, eta eskertzekoa da hori.

- Erraz moldatu zinen Berlinen?

Hona etorri nintzenezan saihestu egin nuen hango jendearekin elkartzea, bertako giroa ezagutu nahi nuelako eta nire errutina apurtu. Dena nahiko berria izan zen, nahiz eta jakin bazeudela hango jende osatutako talde txoak.

- Zein hizkuntzatan hitz egiten da bertan?

München Berlinen baino aleman gehiago hitz egiten da. Jende asko doa bertara lanera, eta nazioarteko giro handia dago, beraz, jende askok ingelesa daki, nahiz eta hizkuntza asko entzuten diren. Nik ingelesez egiten dut lan, eta nire proiektua ere ingelesez egin nuen.

- Zer moduz moldatzen zara alemanarekin?

Beno. Etorri nintzenezan pixka bat banekien eta hobetzea lor-



tu dut, baina oraindik lagunarteko jergak eta ez ditut guztiz kontrolatzen. Banaiz gai esan nahi dudana esateko, baina askotan ingelesez hitz egiten dut.

- Zerbaiten falta sumatzen duzu?

Familiarena, lagunena eta Ermuak duen etxekotasunarena ere: tabernan ezagutzen zaituzte, beste kuadrillekin ondo moldatzen zara, gauza ezagunak egitea... Han ohitura gehiago dago beti kuadrillarekin geratzeko, eta hemen ez da hain ohikoa, nahiz eta taldetxo bat eduki dezakezun.

- Nolakoak dira zure egun arrunt bat?

Depende. Etxetik edo lantokian egiten dut lan. Etxean geratzen banaiz lagunekin geratu

edota boxeatzera joaten naiz. Emakume eta emakume lgbt+ talde batean nago (alemanez FLINTA deitzen da), eta bertan emakume lesbiana, intersex, ez binario eta kolektibo horiek sartzen dira, emakume moduan identifikatzen diren guztiak, alegia. Orain dela gutxi ere rokodromoan hasi naiz. Horrez gain zerbait hartzera ere irteten naiz, afariak, erakusketak, asteburuetan juerga...

- Uste duzu Ermura bizitzera bueltatuko zarela?

Egunen batean, bai, baina oraindik gustura nago, eta ez dut epe laburreko planik egin. Beraz, momentuz bertan geratzeko asmoa dut.

Nahia Ruiz Albizuri

Eskuz egindako terapietan adituak

ARTROS
FISIOTERAPIA MANUAL

Probaleku 5 · 48260 · Ermua
617 680 156
www.artrosermua.com

KRABI
Ileapaindegia
Estetika

Tel: 943 03 17 56 Diputazio, 5 ERMUA

Psikologia
Ongizate pertsonalerako zentroa

GUZTIOK
Nahia Rojo Bustindui
Psikologoa eta Sexologoa

Zubiaurre 40 · Ermua
Hitzorduak: 688 85 18 95

Elkarrizketa



Orihen musika taldea:

“Colapso diskoarekin Orihen taldearen aro bat itxiko dugu”

2013an sortu zen Orihen Ermuan eta, hamargarren urteurrenaren atarian, eszenatokiak hartzeko gogotsu daude taldekideak. Estudioko laugarren diskoa kaleratuko dute azaroan, *Colapso*, hardcorea, rocka eta metala uztartuko dituen, eta horrekin batera garai berri bati ekingo diote, taldekide berriekin eta ilusioz gainezka. Horrek guztiak *Colapson* dute isla, “mimo handiz landutako proiektua baita, inoiz taldeko kide izan direnen parte-hartzearekin”. Laster abestiren batzuk entzun ahal izango dira hainbat plataformatan.

- Zein puntutan dago Colapso, zuen laugarren diskoa?

Espero dugu datorren hilabetean kaleratzea, azaroan. Masterizazioa prest dagoenean, kopia fisikoak egiteari ekingo diogu; bitartean, kantaren bat zabalduko dugu sare sozialean (Spotify, YouTube, Facebook...).

- Non grabatu duzue diskoa? Mutrikuko Ame Estudioetan grabatu dugu, Axular Arizmendirekin, eta Paxkal Etxeparek dihardu masterizazioan, Biarritzen.

- Nola definituko zenukete Colapso?

Sei abestiz osatutako bilduma da, eta esan daiteke abestio estilo zuzenekoak direla. Hardcorea, rocka eta metala uztartzen dute, erritmo melodikoekin batera. Estiloari dagokionez, esan genezake taldearen estiloari zintzo jarraitzen diogula, baina abestien lanketan eboluzioa sumatu dugu. Izan ere, arreta berezia jarri dugu denboretan eta gauza txikietan. Aldi berean, abestien konposaketan ere aldaketak egon dira, gehienak lokalean bertan sortu ditugulako.

- Zeri buruz hitz egiten dute sei abesti hauek?

Errealitate gordinaren eta inposaturiko bizi-moldearen aurrean aldaketa eskatu eta itxaropen izpiak jaurti nahi dituzten hitzak dira, zuzenak baita ere. Tartean jorratzen dira adiskidetasuna, diru-go-

sea, giza hondamendiak eta jazarpena, bai naturarekiko eta baita planetan gauden izaki bizidun guztiekiko ere.

- Zergatik Colapso izena?

Guretzako kolapsoa da bere antinaturaltasunagatik jarraitzen ez duen bizimodu guztiz kaltegarria, bai naturarentzat eta baita giza-espeziearentzat ere. Kolapsoa da jarraitu ezin den bizimodu bati jarraipena ematea, eta, ondorioz, atzera bueltarik ez daukan ustezko egoera horretara heltzea: kolapsora, alegia.

- Nola zabalduko duzue diskoa?

Hainbat kopia aterako ditugu Digipack formatuan. CD formatua azkenaldian ez denez erabiltzen, 200 ale argitaratuko ditugu, herriko tabernetan, kontzertuetan, gure bandcampen eta denda espezializaturen batean salgai egongo direnak. Kopia horiez gain, Colapso gure webgunean entzun eta deskargatu ahal izango da: orihen.bandcamp.com.

- Duela zenbat denbora grabatu zenuen aurreko diskoa?

La última canción 2018ko udaberrian kaleratu genuen.

- Zertan eman duzue denbora ordutik?

Azken urteotan gauza asko gertatu dira taldean: kide batzuk aldatu dira, kanta berriak sortu ditugu (Colapso osatuko dutenak), taldearen hamargarren urteurrena gerturatzen ari zaigu...



- Gorabehera handiak egon dira, orduan?

Bai, Orihen berria eraikitzen ari gara, piezak mugitzen. Duela hiruzpalau urte Maialenek taldea utzi zuen, eta Iván Vecino "Ivi" hasi zen gitarra jotzen. Aurretik ere gurekin lan egindakoa zen, ordezkapen puntualak egiten, baina 2019an taldera batu zen. Gero pandemia etorri zen eta, abesti batzuk prest genituen arren, etena egin behar izan genuen. Eten hau dezente luzatu zen, eta 2021eko amaieran Andonik jakinarazi zigun taldea utzi behar zuela. Momentu hartan, taldearen beraren jarraipena kolokan egon zen.

- Baina aurrera egitea erabaki zenuen...

Bai, erabaki genuen prest genituen abestiak grabatzea, eta gerora sortuko zen baten bat gehiago ere. Gainera, Andonik diskoa grabatzeko konpromisoa hartu zuen, oraindik ere gure taldeko kidea baitzen.

- Zer gertatuko da diskoa grabatu eta gero?

Andonik taldea utziko du, eta Fran "Patxi Dinamita" baxua jotzen hasiko da. Aro berri honetan honakook osatuko dugu Orihen: Oscar Garrido "Moshky" (gitarra) eta Aitor Cid "Cillo" (ahotsa), taldea sortu zenetik geratzen diren kide bakarrak. Hauez gain, Unai Goitia (bateria), Iván Vecino "Ivi" (gitarra) eta Fran "Patxi Dinamita" (baxua) arituko dira. Ilusioz beterik ari gara lanean, taldea birsortzeko disko berriaren aurkezpenari begira.

- Disko berezia izango da, beraz...

Bai, eta aipatu beharra dago, inoiz taldeko kide izan diren guztiek disko honetan kolaboratu izan dutela nola edo hala. Maialenek *El rompeolas* eta *Beste behin* kantuetan abesten du, eta Mikelek (gure bateria ohiak) diskoaren azala egin digu. Honekin batera, garai bat itxiko dugu Orihenen, adiski-

“Taldearen estiloari zintzo jarraitzen diogu, baina abestien lanketan eboluzioa sumatu dugu”

SAN PELAYO
HORTZ KLUBA • CLÍNICA DENTAL

Zuri egokitzen den odontologia
La odontología que se adapta a ti

Dra. OLATZ GARCÍA ARREGUI Col. nº 1264

PADI
Programa Ayuda Dental Infantil Gobierno Vasco

943 17 04 04
info@clinciasanpelayo.com

San Pelayo Zeharkalea 5
48260 Ermua (Bizkaia)

OINAK

LEIRE MAYORA
PODOLOGOA

Erdikokale 1, 1. A
48260 Ermua
943 17 47 44

LONDON
-taberna-

“Hamargarren urteurrenerako pilak kargatuta izan nahi ditugu”

detasuna baino gehiago sortu duen garaia, alegia.

- **Diskoa masterizatzen ari den bitartean, zertan zabiltzate?** Entsegu garaia da, aurretik bizi izandakoari eta grabatutakoari forma ematekoa. Gogotsu gaude, eta kontzerturen bat egiteko aukera izan dugu, baina eskuartean daukaguna mimo handiz egin dugu, eta merezi duen bezala aurkeztu ahal izateko lanean dihardugu.

- **Eta zeintzuk izango dira hurrengo urratsak?**

Zuzenekoak prestatzen ari gara, urtea bukatu baino lehen diskoa aurkeztu ahal izateko. 2023an gure hamargarren urteurrena ospatuko dugu, eta pilak kargatuta izan nahi ditugu, eszenatokian ospatu ahal izateko halako data bereziak eskatzen duen bezala.

Dorleta Vidal



Colapso abestiz abesti

Gregor MacGregor.

Diskoaren lehen abestia sarkasmoaz baliatzen da lagun bati iruzur egiteko eta manipulatzeko gai den pertsona bati buruz hitz egiteko, eta nola pertsona hori guztiaz jabetzen den.



La ira.

Genero-indarkeria jorratzen du.

Colapso/6F.

Zaldibarko zabortegiko gertaeraz dihardu, eta horren bitartez bi jarrera kritikatzeko ditu: ingurumen-kudeaketaren eredia eta egungo eredu soziala. Azken eredu honi jarraituta, neurririk gabe kontsumitzen da eta baliabideak agortzen dira, egoera guztiz jasangaitza sortuta, erlojubonba baten estilora.

Beste behin.

Komunikabideek hitzak nola manipulatu zituzten eta herrien arteko bakea nola lohitzen duten du ardatz abesti honek, preso baten ikuspuntutik. Taldearen euskarazko lehen abestia da, eta "musikalki ere beste kantuengandik gehien bereizten dena izan daiteke", esan dute taldekoek.

El rompeolas.

Baldintzarik gabeko adiskidetasunari buruz dihardu, batez ere pertsona batek behea jotzen duenean.

Los SinNombre.

Immigrazioa du hipide, eta nola gizarteak beste alde batera begiratzen duen.

SAN ANTONIO OKINDEGIA
GOZOTEGIA

Izelaieta, 40 Tel. 17 00 63

AMAIA HARATEGIA

Bertoko Okelak

Probaleku 5
Tfnoa. 943 17 05 84
Ermua

AIZ

AIZ
Garraioak, S.L.

☎ 636 95 83 39 (JULEN)

IKASTOLA
1968tik Ermua
euskalduntzen

Film Laburren II. jaialdia burutuko du Nahikari Elkarteak azaroan

Azaroaren 6an eta 13an egingo da Mallabiko II. Film Laburren eta Kontakizunen jaialdia, Nahikari Emakumeen Elkarteak antolatuta. Emakume arrazializatua eta gorputz ez-normatiboak izango dira saio hauen ardatzak, hurrenez hurren, eta herritar guztiei daude zabalik.

Mallabiko Nahikari Emakumeen Elkarteak hainbat ekin-tza antolatzen ditu urtean zehar, gai ezberdinen aurrean herritarrek sentsibilizatzeko. Azaroan hain zuzen ere, bi ekimen burutuko ditu elkarteak: alde batetik, Film Laburren eta Kontakizunen jaialdia, eta bestetik, eskolako umeekin saio bereziak, berdintasuna lantzeko.

Film Laburrei dagokionez, azaroaren 6an (igandea) burutuko da lehen saioa, "Emakume

arrazializatua" izenburupean. 12:15an jaialdiaren aurkezpena egingo da, eta jarraian hiru film labur eskainiko dira: *Farrucas*, *Laatash* eta *Sitara*. 13:15ean, te marokoarraren zeremonia burutuko da, Ahizpatasuna arrazializatutako emakume magrebtarren elkarte feministaren eskutik. Elkarte horretako emakumeei elkarriketa egingo zaie gero, eta solasaldia eta galderak egiteko aukera egongo da bukatu baino lehen. Horren helburua izango da bertako emakumeen eta Marokoko emakumeen arteko elkarbizitza hobetzea, elkar ezagutzea, enpoderatzea eta estereotipoak haustea, besteak beste.

Jaialdi honen bigarren saioa azaroaren 13an egingo da, eta gorputz ez-normatiboen gaia landuko du. Aurkezpena eta gero, *XSmall*, *El infierno y tal*, *Reflejos* eta *Cerdita* filmak ikusteko aukera egongo da. 13:10ean "Bodypositive eta indarkeria estetikoaz hitz egin dezagun" hitzaldia egongo



da, Irene Saborido aktibistaren eskutik. Bukatutakoan, solasaldia, galderak egiteko tartea eta agurra egingo da.

Saio biak Kontzejuzarrean burutuko dira, 12:15 eta 14:00ak bitartean. Sarrera doakoa izango da, eta herri guztiari egongo da zabalik, emakumeei zein gizonezkoiei.

Indarkeria agerian jarri

Nahikariko kidea den Lorea Arregiren esanetan, elkartearen helburuetako bat da indarkeriaren kontrako ekintza ezberdinak egitea eta ezagutzera ematea indarkeria mota ezberdinak. "Hau da, prebentzioa lantzen dugu eta aldi berean ikusgai jartzen ditugu isilean ematen diren indarkeria motak: emakume nagusien kontrakoa, atzerritarren kontrakoa, gorputz ezberdina dituztenen kontrakoa...", argitu du.

Horrelako indarkeriei aurre egiteko, Nahikari Elkarteak gizarte-laguntzako eragile bat dauka taldean, Bizkaiko Foru Aldundiaren "Tartekari sarea" programaren formakuntza jaso duena, eta horrelako kasuak antzematen aditua dena.

Aipatutako xedeaz gain, Elkarteak badu zeharkako beste helburu batzuk ere ekintzak antolatzen dituenen: "Herri txikietan bizi diren emakumeak, batez ere landa-eremuetan bizi direnak, nahiko isolatuta bizi dira —azaldu du Lorea Arregik—. Hortaz, ekintza ezberdinak antolatzen hasi ginen emakumeak herrira etortzeko, etxetik irteteko, elkarren arteko harremana sortzeko, autoestimua lantzeko tailerretan parte hartzeko eta norberaren espazioak topatzeko, besteak beste".

Dorleta Vidal





ITZE
OPTIKA
AUDIO

Entzumenaren doako azterketak
Audifonoetan azkenengo teknologia

Probaleku, 7 **Tfnoa. 943 17 46 51**

Drogeteniturrri, 315 zk.



MALLA
ilegapaingia

Probaleku 8, behea © 943 17 18 50

URRIKO JAIAK

URRIAK 27, OSTEGUNA (GAU BELTZA)

19:00 Hitzaldia: "Oiz mendia: gune sakratua. Lau milurteko hileta praktikak", Kontzejuzarrean.

URRIAK 28, OSTIRALA

17:00 Txondor Herri Kirol taldearen erakustaldia parkean.
18:30 Txupinazoa Kontzejuzarreko balkoitik.
19:00 Elizpeko pilota txapelketaren finala elizpean.
20:30 Oilasko pintxoak parkean. Tiketak: 1,50 €.
21:00 eMePebo5t taldea, parkean.
00:00 DJ Gorka Perez, parkean.

URRIAK 29, LARUNBATA

11:00 Duetloi txikia herri barruko zirkuituan.
12:00-15:00 Mallabiko V. Arda Ferixie probalekuan. Sarrera: 7 €. Pintxoak, salgai Mallabiko tabernariak eginda.
14:30 Herri bazkaria: paella, parkean. Tiketak salgai jarriko dira. Aukeran autogestionatua.
18:00 Kick Boxing gaua. Herriko frontoian.
Sarrera: 15 € kantxan; 10 € harmailetan.
19:00 Kale animazioa Dunbots elektrotxarangarekin.
22:30 Kontzertuak parkean.

URRIAK 30, IGANDEA

16:30 Tor magoa umeentzat. Probalekuan. Ondoren txokolatada.
13:00-19:00 I. Autoen Slaloma Goitondo Beheko Lau
17:00 Mus txapelketa Kontzejuzarrean.
Sariak:
1. saria: 120 € eta garaikurra.
2. saria: 100 €.

3. saria: 80 €.
4. saria: 60 €.
zen-ematea: 10 € bikoteko.

URRIAK 31, ASTELEHENA (GAU BELTZA)

Sorgina Txirulina: ipuin kontaketa musikatua liburutegian:
17:00 3-5 urte bitartekoentzat.
17:30 6 urtetik gorakoentzat.
18:00 Kalabazak hustu; aurpegiak eta kareetak margotzea parkean.
19:00 Iluntasuna piztu... ekitaldia! Ondoren txorizo pintxoak.
Bukatzeke: Trikiti poteoa Takitto taldearekin.

Antolatzaileak: Herri Ekimena, Satxibu, Mendibil abesbatza, Guraso elkarte eta Mallabiko Udala.

NESKEN FRONTENIS TXAPELKETA BURUTU DA URRIAN

Urriaren jokatu da Mallabian nesken frontenis maratonia, eta antolatzaileen esanetan, Euskal Herriko eta estatuko frontenis jokalaririk onenak bildu dira bertan.



Itxaso Pradera mallabitarrak eta Laura Saez gasteiztarrak osatzen duten bikoteak jokatu beharreko sei partidak irabazi zituen, eta binakako txapela irabazi zuten, finalean Ana Garcia salamancarrari eta Lorena Barrón errioxarrari irabazi eta gero (8-6). Bestalde, bikote amateur onenari saria Goierriko Lierni Asurabarrenak eta Maialen Ezeolazak jaso zuten. Banaka Ana Garciak irabazi zuen, Maialen Bilbao durangarrari 16-6 irabazi eta gero. Azken honek arazo fisikoak izan zituen finalean.



ZUZENBIDE KONTUAK

Lege eta kontu aholkularitza

Izarra Centre eraikina
Tel: 846080080
Mugikorra: 688885435
zuzenbidekontuak@gmail.com

Enter
INFORMÁTICA
SALMENTAK
IRAKASKUNTZA
ZERBITZU TEKNIKOA
VI. Mendeurrena 19, behea
943 17 90 37
enter@informaticaenter.com

KARABIXA
KARABIXA KAFETEGIA
Egunero 8:30etik aurrera zabalik

solozabal
tabakoak
torrekua 1
tel./fax: 943 17 07 33

Proba-Leku
Ileapaindegia - Estetika
Probaleku 3, 1A
Tel. 943 17 05 42

Dioni Ardanza, dotoreziaren jostuna

Modan zer, haxe diseinatzen zuen berak: soinekoak, berokiak, goitik beherako trajeak, prakak, jaunartze eta ezkontza arropak... Dioninian jositakoak ukitu berezia zuten, dotore beti eta oihal onenekin eginda izatean, betirako. Bere gainekoak gogora ekartzen etxeok lagundu digute.

1 914ko abenduaren 5ean, jaio zen. Sallabenteko Benta taberna gurasoen kargu zegoen eta bertan bizi eran Bentako Dioni modura ezaguna izango zen. Ermuarra zen aita, Felix Ardanza, Joxio baserrikoa eta elgetarra Maria Ormaetxea ama, Olaihortakoa. Bizikleten frenoak egiteko tailerra zuen Felixek eta Mariak, sukaldari ona, Bentako taberna eta sukaldea maneiatzen zuen: eguneroko eta egun bereziatara jatorduek, apopiloak...

Tabernako mostradorean, sukaldean... etxe bueltan beti zereginen bat, baina Dionik joste kontuok zituen gustuko. Txirri-txirri ikasiaz joan zen, bere kaxetara. Tabernapean lokala atondu zioten, argitsua eta erreka freskurara ematen zuena. Apurka-apurka erakusteari ere ekin zion eta jostundegia aulkitxo, oihalez, hariz, barrez eta ipuinez bete zitzaion. Hiru josteko makina zeuden baztertxo banatan, gehiena eskuz egiten zen

arren. Sasoi baten 20 neska izatera ailegatu zen, ofizialak batzuk, berari laguntzen zihardutenak, eta apendizak besteak, ikastera zetozenak: Dionik erakutsi egiten zien lehenengo eta gerora joskitzan laguntzen zioten. Arroparen korteaz gehienetan bera arduratzen zen eta behin jositakoan, azken begiratu ere berarena zen; zuzen ez bazegoen eginda, soltatu eragiten zien. Hobeekin geratu behar zen.

Toribio Maiztegi eibartarrekin ezkondu, Mari Nieves, Ana Mari eta Jose Mari izan ziren bikotearen seme-alabak, eta neskok amaren arrimura josten ikasi zuten. Andrazkoa gehienak hobetoago edo txartoago josten zekiten sasoi hartan, denen gainetik nabarmentzen zen Bentako Dioni, inguruko jostunik preziatuena eta entzutetsuena izatera ailegatuz: esku ona, berezkoa zuen, eta jantzien diseinuekin ausarta eta aurrerakoa zen.



Betirako arropak

Kalitate handiko oihalez hornitzea gustatzen zitzaion, hauekin arropak beste modu batera egokitzen zirelako bezeroaren gorputzean: kotoiaz gain, satina, gipurra, larrua, tizua, damaskoa, tertziopeloa, organtzia, astrakana... "Bilboko Egiron eta Bartzelonako Gracox eta Santa Eulalia oihaldendetan erosten zitxuan.

Botoiak, harixak, kremaierak eta abarrok be handik jiratzen zitxuan. Bartzelonara koleziñuak ikustera urtian birritan juaten zan, udegunian eta udabarrizan, denboraldia hasi aurretikuan" seme Jose Marien gogorapenez. Bartzelonako etxeekin tratu handia eduki zuen eta urteetan egon zen bertara joaten. Han ikusten zuen modan zetorrena eta gero jostundegira jantzien patrioiak



Drogeteniturrri, 315 zk.

ileapaindegia

Silvia

peluqueria

Asteartetik ostiralera
9:00-12:00 15:00-19:00
Larunbata
8:30-13:00

943 170474 688819336

eta katalogoak bidaltzen zizkioten “soinekuon dibujuekin”, oihala mozterakoan lagungarri. Jose Mariren emazteak, Marian Agirrebeñak ondo gogoan du amaginarreba eta koinata Mari Nievesekin Bartzelonara joaten zenekoa, desfileak ikusi eta hurrengo denboraldian eramango zen estiloak eza-gutzera. Dionik aspaldi egin-dako jantziak gordetzen ditu Marianek: lehenengo egunean bezala daude eta modaz batere pasatu barik. “A zelako telak erabiltzen zitxuan! Eta botoiak gero... ikusgarriak, atentziñua

emoten zotsuen!”.

Mauka abullonatu, farola, japoniarra, ranglana, frantse-sa... ondo ezagutzen zituen bakoitzaren ezaugarriak. Perfekzionista, detailezalea eta gauzak ondo egitekoa zen “edozer gauza eitzen zebala, soinekua, abrigua, gona zein trajia izan, ikustekua zan zelauzeuzen ezkontuta telak: erreixak erreixekin, kuadrak kuadruekin... Nahiz eta telia galdu dibujuak lotu bihar horretan!” gogoratzen du Jose Marik.

Bezeria aparta

Jostundegiaren ondoan saloitxo bat zeukan, bere ispluarekin, “errezibidorra” deitzen ziona. Harrera-gela hartan artatzen zituen bezeroak, oiha-lak erakutsiz, neurriak hartuz, albaindu ostean arroparen probak eginez... Bezeria selektoa eta fidela zuen, lana ondo eta mimo handiz eginda urteetan mantentzen jakin zuena. Ermutik ez bakarrik, leku askotatik etortzen zitzaizkion: Zaldibartik, Mallabitik, Durangotik, Markinatik, Zumaiatik, Zumarragatik, Plaentxiatik, Mutrikutik, Eibartik asko... Bere ideietatik eta eskuetatik irtendako guztia dotorea, moda-modakoa eta bikaina zen, “oihalik onenekin detailera jositxakua, kategoriakua. Be-



Dioni Ardanza familian (1970).

tirako eitzen zitxuan erropak. Gustua zekan gauzak eitzeko eta gustura eitzen zitxuan gainera” Jose Mariren esanetan. “Jaixegunerako erropia zan, astegunerako baino. Lehen, domeketan, erropa jantzi-xauak eruaten zian; oin danok antzerako goiaz jaixegun izan edo astegun izan” Marianen berbetan.

Jai eta zeremonietarako arropa asko ateratzen zen bere tailerretik: ezkontza eta jaunartze soinekoak, udaberri edo udazkenaren etorrerarekin zein herriko jaietan estreinatzen zituztenak... “Lan handia egindakoa dira bai ama eta bai Mari Nieves eta Ana Mari arre-bak. Sarritxan gauzez be josten ekintzen zotsien, erropa bat egun jakin baterako prestatu bihar zanian: herrixetako jai-

xak edo ezkontzak edo udia zetorrenian, eskaera mordua eukitzen zitxuan. Zeozer estreinau bihar izaten zan-eta!”, diosku semeak. Bera ere joandakoa da, kutxa baten sartu soineko edo trajeren bat eta Eibarrera haxe entregatzera.

Karakter gogorrekoa zen arren, pertsona kariñosoa eta gozoa zen Dioni Ardanza, Sallabenteko Bentako modista. Azkenera arte josi zuen, azken urteetan ere gusturen zegoen eskuetan orratza eta haria zuenean. 2005eko urtarrilaren 9an hil zen. Urteetarako egiten zituen jantziak eta armairu askok oraindik gordetzen dituzte Dioninian egindakoak, bolara oneko, modaren joan-etorriek zaharkitu bakoak.

Estibalitz González



Espezialistak
ilea mozten
eta kolorean

Goienkale 9 behea
48260 ERMUA Bizkaia
943 17 66 90

CITROËN
AUTOS AMEDI

Zearreko buelta eraikina 3, L8 pab.
Telefonoa 943 17 04 14

Gosari, bazkari eta afariak
eramateko prestatzen dugu

Astegunetan 7:00etatik zabalik
Asteburu eta jaiegunetan,
10:00etatik.

Komentukua z/g · 943030527

Plan B

Coffee Lounge Gin & Beer

Jon Albizu
Ainhoa M. Goitandia

Extremadura zeharbidea z/g
48260 ERMUA (Bizkaia)
Tel.: 943 174 505

**MARTXAN DA JUANITA
IBAIBARRIAGA
LITERATUR
LEHIAKETAREN XXIX.
EDIZIOA**

Ermuko Udaleko Euskara Sailak antolatutako lehiaketa honetan bi kategoria egongo dira: lehengoa, Lehen Hezkuntzako 3. mailatik 6. mailara; bigarrena, DBHko 1. mailatik 4. mailara. Kategoria bietan gaia librea izango da eta ipuina edo narrazio formatura egokitu beharko da idatzitakoa. Sariak, 40 eta 60 euro bitarteko erosketak txartelak izango dira. Parte hartu nahi dutenek Lobianora edo Euskara Sailera eraman beharko dituzte lanak, edota euskara@udalermua.net helbidera bidali. Edozein bide aukeratuta ere, azaroaren 3a baino lehen aurkeztu beharko dira lan hauek. Sari-banaketa ekitaldia abenduaren 1ean izango da, Euskararen Eguna ospatzeko Ermua Antzokian egingo den jaialdian.

**AITOR HERNANDEZ
TXIRRINDULARIAK BI
GARAIPEN LORTU DITU
BURGOSEN**

Ziklo-kroseko denboraldia hasi berria dago, eta Aitor Hernández ermuarrak bi garaipen lortu ditu dagoeneko: urriaren 15ean Medina de Pomarren (Burgos) eta 16an Villarcayon (Burgos). Hogei lasterketatik gora burutuko ditu txirrindulariak, urriari hasi eta urtarrilean bukatuta, eta tartean UCI C1 eta C2ko lasterketak daude, hala nola Espainiako txapelketa ere, urtarrilaren 15ean.

Bertso saioa burutuko da urriaren 28an

Urriaren 28an, ostirala, San Martin kulturaleko bertso saioa burutuko da Ermua Antzokian, 20:30ean. Euskal Birusa Euskara Elkarateak antolatuta, honako bertsolariak arituko dira oholtza gainean: Manex Agirre, Nerea Ibarzabal, Saioa Alkaiza, Beñat Gaztelumendi, Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio. Andoni Egaña arituko da gai-jartzaile lanetan. Sarrera 10 eurotan dago salgai.



Almu Maesoren erakusketa Eibarren ikusgai

Almu Maeso artista plastikoak bere lanen erakusketa egingo du Eibarko Portalean. Katapultata Plataformak eta Bilbao Arte Fundazioak sustatuta, pintura, grabatu eta zeramika tekniken bitartez egindako 55 artelan jarriko ditu Portaleako erakustokian ikusgai. Urtarrilean hasi zen ermuarra erakusketa prestatzen, eta ordutik buru-belarri aritu izan da sormen lanean. "Azulejos" izenburupean, urriaren 29an hasi eta azaroaren 20ra arte zabalik egongo da, 18:30etik 20:30era, beti ere asteartetik igandera.



Hiru Txikiak Trail lasterketak arrakasta handia izan du

Urriaren 15ean burutu zen Hiru Txikiak trail jarduera, eta antolatzaileak oso pozik daude emaitzarekin. Eurek jakinarazitako datuen arabera, Euskal Herri osoko 436 lagunek eman zuten izena, 203k trail lasterketan parte hartzeko eta 233k martxa egiteko. Ermuko datuei dagokionez, 225 herritarrek eman zuten izena, 77k trailean eta 148k martxan. Traileko parte-hartzaileen artean, 6 neska eta 71 mutil aritu ziren; martxan, aldiz, 37 neska eta 111 mutil. Urko, Oiz eta Egoarbitza mendietako gailurrak zeharkatu zituztenen sailkapena hauxe da: Pello Berrizbeitia (Eibar) 3:49:41; Julen Olaizola (Ermua) 3:53:42; eta Sergio Aguirregomezorta (Elgoibar) 4:17:41. Laugarren postuan Eneko Garitagoitia mallabitarra heldu zen (4:23:23). Nesken kategorian: Mayi Mujika, Elgoibar, (4:40:12); Lorena Guinaldo (Eibar) 4:48:48; eta Oihane Perez (Gernika) 5:02:37. Lehengo mallabitarra Lorea Totorica (5:21:39) izan zen; eta lehen ermuarra Ainhoa Portugal (6:16:38).



Ferreteria
ANBOTO
Burdindegi

Orain
**KOTXEKO GILTZEN
KOPIAK** ere
egiten ditugu

943 17 69 76
607 33 11 77

ZUBIAURRE, 25 ERMUA (BIZKAIA)
www.ferreteriaanboto.es

Horacio Decoración

VI Centenario 10 - Ermua
943 03 15 80
www.dghoraciodecoracion.com

TAPIZERIA - ALIZARIK - OSAGARRIAK

Pedro Castro eta Víctor Manuel Rodríguez, Mikologiaren Lagunak Elkarteko kideak:

"Ikerketei esker, gero eta informazio gehiago daukagu perretxikoen inguruan"

Urriaren 20tik 23ra bitartean burutu dira XXXV. Jardunaldi Mikologikoak Ermuan. Haien antolatzailea den Mikologiaren Lagunak Elkarteak ere 35 urte bete ditu, eta taldekideekin batera elkartearen lanari erreparaso egin diogu.

- Zer dela-eta sortu zen Mikologiaren Lagunak Elkarteak?

1987. urtean ekin zitzaion lanari. Garai hartako taldekideek oso oinarritzko ezagutzak zituzten, baina lan handia egin zuten. Gero Pedro Castro batu zen taldera, eta honek Mikologia ikasketak dituenenez, taldea eta zereginak modernizatzeko aukera izan genuen.

- Zein da Elkartearen helburua?

Lehenengo eta behin, onddoen eta perretxikoen inguruan dagoen interesa jaso, bideratu eta sustatu nahi dugu: maila zientifikoan, gastronomikoan eta mediku-toxikologikoan. Horrez gain, instituzioekin eta erakunde ezberdinekin kolaboratzen dugu eta ekintza ugari antolatzen ditugu adin tarte ezberdinei zuzenduta, besteak beste. Duela gutxi herriko eskola bateko bospasei urteko umeekin elkarlana egin dugu.

- Zein da azken urteotan Elkarteak egin duen ekintzarik aipagarriena?

Plazan egiten dugun perretxiko-erakusketako txartelak

aldatu genituen duela urte batzuk. Eskuz idatzita zeuden, eta gaur egun informazio oso zehatza duten koloredun txartelak sortu ditugu. Familiak ere sailkatu ditugu, eta estatu osoan ez dago horrelako lana egin duen elkarterik.

- Harremana duzue beste herri batzuetako elkarrekin?

Bai, guk Ermuan eta inguruko herrietan zabaltzen ditugu gure ezagutzak, eta beste herrietako elkarrekin ere informazioa trukutzen dugu.

- Badago berritasunik perretxikoen munduan?

Bai, ikerketa sakonei esker, gero eta informazio gehiago daukagu. Adibidez, azkenaldian *Tricholoma terreum* espeziarekin (ziza arrea edo *negrilla*) polemika handia dago, orain arte jateko ona bazen ere, gaur egun toxiko bezala sailkatu dutelako. Guk zalantza ditugu, baina instituzioek esandakoa errespetatzen dugu.

- Kontuz ibili behar da mendian...

Bai, baina hala ere, gure ustez perretxiko guzti-guztiek eragin dezakete heriotza, modu



Pedro Castro ezkerrean eta Víctor Manuel Rodríguez eskuman.

jarraituan eta barra-barra jaten baditugu. Zortzi-bederatzi egun jarraian onddoak jaten badituzu, kopuru handian, gaitoxu egingo zara ezinbestean. Izan ere, perretxikoen %80 ura da, eta gainontzekoa metala: zink, selenio, burdina... Metalak kalte egiten die hezurrei. Gure gomendioa da perretxikoak jatea astean behin (edo birritan asko jota), eta beti 100 gramo baino gutxiago.

- Jendeak zer daki perretxikoez?

Jendeak perretxiko gutxi batzuk ezagutzen ditu, eta horiek

batzen ditu, ez dauka bestelako interesik.

- Nola ikusten duzue elkarrearen etorkizuna?

Uste dugu elkartearen biziraupena kolokan dagoela. Taldekideon batezbesteko adina oso altua da, 70 urte ingurukoa, eta ez dago erreleborik. Gazteen artean perretxikoak batzera joateko zaletasuna badago, baina ez dute gurekin kolaboratu nahi, eta pena handia ematen digu, egin dugun lan guztia galduko delako.

Dorleta Vidal

Zubiaurre, 29 - Ermua · 943 170305

ZURE FINANTZA-OSASUNERAKO BAZKIDE ESTRATEGIKOIA

ZERGA, LAN ETA KONTABILITATE AHOLKULARITZA ERMUA

Bitsi-denda Tailer peopioa Etoju-denda

Diseinua eta kalitateak bereizten gaituzte

San Pelayo zeharbidea 4 ERMUA (48260) BIZKAIA
www.joyeriasenen.com - joyeriasenen@gmail.com

Wikipedian emakumeen presentzia areagotuz

Wikiemakumeok Durango egitasmoaren hegoean emakumeen biografiak Wikipediara altxatzeko erronkari oratu zioten bi lagunek 2018an. Gaur egun, bederatzi ari dira bilaketa, orrazketa eta edizio lanetan, eta hasieratik hona 2.200 emakumeren biografia sortu edo euskarara ekarri dituzte.

Emakume eta gizonen biografia kopuruaren desorekari erreparatura, Wikipedian editatzeari ekin zioten Marisa Barrenak eta Miren Sarrionandiak, euskaraz batak eta gaztelaniaz besteak. Durangoko Benita Uribarrena izan zen beraien lehen sorkuntza. 2020an, Mentxu Ramilok, gaur egunean Wikimedia Españako lehendakariordeak,

formakuntza bat eskaini zuen Durangon eta taldetxo bat sortu zen bertan, gerora wikilari gehiagorekin indartu dena. Joan-etorri eta sartu-irten desberdinak izan ditu taldeak, hasi eta segituan laga edo ekin eta betirako lotu direnak. Une honetan bederatzi lagun ari dira edizio lanetan, Durangaldeko herri desberdinetako gizon eta emakumeak: Elorrio, Durango,



Durangaldeko Wikiemakumeak taldeko partaideetako batzuk, edizio lanetan

Zornotza, Ermua-Mallabia, eta baita Galdakao eta Etxebarriko beste bi.

Durangoko andrazko esan-guratsuekin hasi baziren ere, handik gutxira ingurukoetara jo zuten. Segituan Gipuzkoa

aldekoekin ziren, Euskal Herri osokoekin gero eta konturatu orduko beste herrialde batzuta-koenak osatzen ari ziren. "2.260 emakume wikipediaratu ditugu. Itzulpenak dira asko eta guk sortutakoak, hutsetik hasita-

Ugaro asesores

- AHOLKULARITZA FISKALA ETA KONTABILITATEA
- LAN AHOLKULARITZA
- AHOLKULARITZA JURIDIKOA



Zubiaurre Kalea, 27 • 48260 ERMUA
tel. 943 17 43 44 • ugaro@ugaro.com

Agente eksklusiboak:

Allianz Seguros

koak beste batzuk. Hain zuzen horixe da gure epe laburreko erronka: sortutako kopurua handitzea” diote taldetik.

Euren esanetan, “edizioa ez da zaila, mekanikan trebatzea besterik ez. Gerturatzeran animatzen dugu jendea, idazteaz gain badaudelako laguntzeko moduak: argazkiak egiten, erreferentziak lortzen, emakume esanguratsuk topatzen...”. Ostiral arratsaldero batzen dira Durangoko Andragunean, 16:00etatik aurrera, ordu eta erdi, pare bat orduz, bakoitzaren denbora ahalmeneren arabera. “Adierazi eziniko zirrara sortzen du emakume bat wikipediaratzea, sarean ikusgai egitea, azken finean munduratzea. Batzuen bizitza eta bizi-baldintzak ikaragarriak izaten dira, harrigarriak beste askorenak eta beraien biografia osatzen dugunean, mirestea besterik ez dugu. Txapela kentzeko moduko emakumeak topatu ditugu!”, diote taldekideek.

Estibalitz González

Ernuarren 54 biografia ditu euskarazko Wikipedia entziklopedia askeak, eta beraietatik 26 emakumezkoenak dira.

- Maria Josefa Aedo lekaimea
- Alazne Aiestaran kazetaria eta Unibertsitateko irakaslea
- Espe Alegria irrati esataria
- Maite Alvarez zientzialaria eta ikertzailea
- Anabel Sanz feminista eta gizarte-ekintzailea
- Lucia Areitioaurtena erraketista
- Victoria Ariño filantropoa
- Maria Rosario Arrizabalaga gizarte-ekintzailea eta feminista



- Maria Bengoetxea euskaltzalea eta kantuzalea
- María del Mar Blanco politikaria
- Julene Bouzo atleta



- Leire Elustondo abeslaria eta kazetaria
- Estibalitz González idazlea eta ipuin kontalaria
- Hipolita Ibaibarriaga erraketista
- Irene Ibaibarriaga erraketista
- Juanita Ibaibarriaga euskaltzalea eta gizarte-ekintzailea
- Isabel Lobiano filantropoa
- Maria Magunazelaia txirringularia



- Arantza Moreno atleta
- Margarita Olañeta gizarte-ekintzailea



- Elena Pérez txistularia
- Jasone Salaberria hizkuntzalaria eta ikerlaria
- Matxalen Ziarsolo eskubaloijokalaria



- Ainhoa Zuazua sopranoa
- Eladia Zubizarreta erraketista
- Rosario Zubizarreta erraketista

Mallabitarren 20 biografia ditu euskarazko Wikipedia entziklopedia askeak, eta beraietatik 13 emakumezkoenak dira.

- Iزارo Andres abeslaria
- Rosita Arregi erraketista
- Digna Garitaonandia erraketista



- Jesusa Garitaonandia erraketista
- Karmele Gisasola herrikirolaria



- Victoria Mallabiabarrena sopranoa



- Josefina Markina filantropoa
- Garazi Mugarza idazlea eta margolaria



- Pilar Narbaiza erraketista
- Damaris Pan artista eta ikertzailea
- Itsaso Pradera pilotaria
- Luzia Sagastasola irakaslea eta kimikaria
- Luz Zalduegi albaitaria



Miguel Ledesma, Triatloiko Europako txapelduna:

“Proba hasi orduko banekien podiumean egoteko aukerak nituela

Miguel Ledesma ermuarrak garaipena lortu zuen irailean burutu zen Europako Triatloi txapelketan, 20 eta 24 urte bitarteko adin taldean. Hiru urte daramatza triatloia munduan, eta aitortzen du urtetik urtera hobeto dabilela. Dagoeneko hurrengo denboraldiari begira dago.

- Bilbon burutu da aurtengo Europako Triatloi txapelketa. Ibilbidea ezagutzen zenuen?
Bai, iaz Bilboko lasterketa hau Espainiako txapelketa izan zen, eta parte hartu nuen ere. Ibilbide bera zen, baina iaz Espainiako laugarren izan nintzen nire adin tartean.

- Aurten irabaztea espero zenuen?

Banekien podiumean egon nintekeela, baina ez nuen uste lehena iritsiko nintzenik, are gutxiago hain denbora ona egingo nuenik. Pozik nago.

- Zer lan burutu behar izan zenuen?

Half distantziako triatloia zen, hau da, Iron Man erdia, eta ho-

nakoa burutu behar genuen: 1.900 metro igeri egiten, 82,5 kilometro bizikletan eta 21 kilometro korrika egiten. Nahikoa!

- Eta zein da gehien gustatzen zaizun atala?

Betidanik oso gustura ibili izan naiz bizikletan, eta aurten sa-soian nago igeri egiten ere. Korrika egiten dudanean, bizirik irtetea da nire helburua, baina tira, ez naiz txarto moldatzen!

- Lasterketa hau denboraldiko azkena izan da. Zein probetan aritu zara urtean zehar?

Euskal Herriko zirkuituan triatloiko 10-12 proba daude, eta gehienetan parte hartu dut. Horrez gain, Frómistako (Pa-



lentzia) eta Medina de Rioseco (Valladolid) triatloietan ere izan naiz. Duetloiak denboraldi hasieran izaten dira, eta horietan ere lehiatu naiz.

- Eta irailetik hona zertan aritu zara?

Denboraldiaurrea prestatzen ari naiz, eta zein probetan parte hartuko dudana pentsatzen. Momentuz eroso nabil distantzia honetan, eta datorren urtean Zarautzko eta Alpe D'Huezeko triatloietan parte hartu nahi nuke. Gustatuko litzaidake Europako txapelketa-
ra joatea, eta aurrera begira, Hawaiiako Iron Manean parte hartu ahal izatea ere.

- Proba hauek zure kabuz prestatzen dituzu?

Ez. Eibarko triatloi taldeko kidea naiz, eta haiekin entrenatzen dut. Talde kopurutsua da, eta lagun asko ditut bertan; eroso nago. Igeriketako entre-

namenduak Eibarko igeriketa taldearekin egiten ditut, eta bizikletako saioak txirrindulari taldearekin. Horrez gain, lan asko bakarrik egiten dut. Astean 15 eta 20 ordu entrenatzen dut, batezbesteko.

- Zer dela-eta hasi zinen triatloian?

Futbolekin hasi nintzen, baina 19 urterekin nekatuta nengoen, eta nire entrenatzailea eta nire bi lagun triatloian aritzen zirenez, ni ere animatu nintzen.

- Zein da zure helburua kirolaren esparruan?

Elite kategorian Espainia mailan postu on bat lortzea gustatuko litzaidake, baina topikoa den arren, urtez urte noa, eta ez dut urrutira begiratzen. Ikusten joango naiz gorputza nola dagoen eta emaitzak hel-tzen diren.

Dorleta Vidal



Infreñu Taberna
Kardenal Orbe plaza
943 174584
www.infretaberna.com

LEIRE RASCO
BIZARTEGIA
ILEAPAINDEGIA
943 17 17 96

@LEYTHEBARBER

C/GOIENKALE NS
ERMUA (BIZKAIA)

Orduz kanpoko ekintzak dagoeneko martxan daude



Aisialdiko ekintzetan parte hartzeko, San Lorenzo auzoko ikasleek herriko erdialdera abiatu behar izaten dute. Guraso Elkarteak ekintza hauek auzoan egiteko aukera eskaini ohi du, eta ikasturte honetan berriro ere, orduz kanpoko ekintzen plangintza antolatu du. Aurten inoiz baino aukera zabalagoa eskaini zaie eskolako ikasleei, hala nola: patinajea, pintura, atletismoa, eskubaloia, skatea eta zumba. Eskaintzak arrakasta handia izan du

eta ekintza guztietan eman dute izena ikasleek. Gainera jarduera batzuetan bi talde ateratu dira: nagusiak eta gazteak.

Barixakuetan euskaraz jolasten



Euskararen erabilera bultzatzeko asmoz eta Udalaren laguntzarekin, ostiral arratsaldeetan aisialdiko ekintzak burutzen ari dira eskolako patioan. Jarduera hauek eskola bukatu ondoren egiten direnez, gure ikastetxeko zein auzoko ume guztiei irekita daude, eta parte-hartze handia izaten ari da. Astixako begiraleen gidaritzapean, helburua ondo pasatzea da, irudimena landuz, jolastuz, kantatuz edota elkar ezagutuz... Eta noski, euskaraz hitz eginez.

Matematika manipulatioa lantzeko gela

Gure eskolan bada gero ideiek eta sormenak eraiki duten txoko berezi bat: matematika manipulatioa lantzeko gela, alegia (guk "mate-gela" bezala



ezagutzen dugu bertan). Egia esan, gela horretan ez dugu magiarik sortzen, ezta ere Pitagorasen teoremaren inguruko analisisirik egiten, eta ezta egingo ere. Zenbakiak eta algoritmoak erabiltzen ditugun? Ba... bai, akabo ba! Baina bertan zerbait are politagoa sortzen da: ikasleek matematikaren erabilera jolastuz eta atseginez lantzen dute. Gure denda, mahai-jokoak, eraikuntzak, zenbaki eta logika jokoak, irudimena, buruzko kalkulu edota arazo-egoera errealak irudikatzen dituzte. Baina onena, benetan onena, ikasleen irribarrea da.

EUSKARALDIA ERMUAN

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra

MARTXAN DA IZEN-EMATEA!



Mahaien boterea

Oporretan zeudela izen handiko museo batera sartu ziren Iker eta Ainhoa. Noizean behin sartzen dira museoren batean, "nahiz eta gu adituak ez izan" Ikerrek beti esaten duen moduan. Ainhoa izaten da beti museoa bisitatzea joateko proposamena egiten duena, eta beti erantzuten dio "zer uste duzu, museora doazen guztiak direla adituak, ala?". Batzuetan purrustaka sartzen da Iker, bereziki arte modernoaren erakusketaren bat bisitatzen badute.

Aldi berean, izen handiko museo horretara sartu nintzen ni eta han gela txuri-txuri eta erraldoi baten erdian bi mahai zeuden. Bi mahai soilik gela horretan, besterik ez. Mahai bat luxuzko mahai bat zen, oso garbia, distiratsua eta handia, bestea, aldiz, zahar-zaharra zen, orbainez betea,

eta zikinkeria ezabaezinak zituen. Mahaietara begiratzen egon nintzen une baten eta pentsatu nuen ariketa on bat zela norberak bere etxeko mahaira begiratzea eta neurri handi batean han ikusiko zuela bere bizitza: nor esertzen den zurekin mahaietan egunero, urrun ala gertu esertzen zareten, nor gonbidatzen duzun zure mahaira, inor gonbidatzen al duzun, zer dagoen mahai gainean inor ez dagoenean...

Iker haserretu egiten da artelan baten aurrean ezer ulertzen ez duenean. Ikerrek nahi duen lehenengo gauza artelan hura "ulertzea" da, egileak horrekin zer irudikatu nahi izan duen deskubritzea, erantzun argi eta zehatz bat nahi du. A, B edo C. Eta artelana ikusi eta berehala jakin nahi du. Ez dio artelanari aukerarik eta denborarik ematen. Edo hobeto esanda, ez dio bere buruari tarterik ematen.



Jabi Vidal

"Zergatik ez diozu kuriositatez begiratzen, besterik gabe?". "Zergatik ez diozu zeure buruari pixka bat harritzen uzten?", galdetzen dio Ainhoak. Beti esaten dio ez duela presarik izan behar gauzak ulertzeko. Lehenengo sentitu egin behar direla. Ainhoak sumatzen du bere buruaren askatasunari diola beldurra Ikerrek. Bere buruari hegan uztea kostatzen zaiola. Ikerrek jarraitbideak nahi ditu, orri bat zer sentitu behar duen azaltzen diona. Lasaiago sentitzen da zer sentitu behar duen azaltzen badiote. Horregatik haserretzen da. Askatasuna lurralde zabalegia delako. Eta lurralde zabaletan norberak aukeratu dezakelako bidea. Eta horrek beldurra eragitearekin batera, denbora eskatzen du.

Mahaietako gelara itzuli nintzen eta pentsatu nuen mahai baten inguruan esertzeak ere denbora eskatzen duela, familiarekin, lagunekin... Luxuzko mahai boterearen isla da eta botereak ez dauka denborarik. Beste mahaietan, aldiz denbora sentitu daiteke. Nik nahiago dut sitsak janda dagoen mahai ziztrin eta zahar bat, baina lagunak izatea haren inguruan. Botere hori baino indartsuagorik ez dago.

“ Pentsatu nuen ariketa ona zela norberak bere etxeko mahaira begiratzea ”

ARRIETA CORDEVI

Etxetresna elektrikoak,
telebistak,
musika-ekipoak...

...prezio eta kalitate
ezin hobean.

VI. Centenario kalea, 5 - ERMUA



Goienkale kalea (Ermua)
Tel: 943 172 454

sehiga.proteccionlaboral@gmail.com



FOTOKOPIAK
KOLOREZKO FOTOKOPIAK
HANDIPENAK - TXIKIPENAK
PLANOAK - AZALEZTAPENAK
FAX PUBLIKOA
INPRIMAKETAK KAMISETATAN

Komentukua, 6 behea 48260 ERMUA TEL. / FAX 943 17 42 89

MIRIAM LOPEZ

- Nola gogoratzen duzu zure haurtzarora?

San Pelayo eskolan eta Ongariko Institutuan ikasi nuen, eta eskubaloian jokatu nuen urte pilo batean.

- Zer ikasi zenuen?

Ile-apaintzailea izateko ikasi nuen Eibarko akademia batean.

- Zertan egiten duzu lan?

Nire ile-apaindegian, Mallabian. Duela 6 urte zabaldu nuen.

- Zer da zure lanaz gehien estimatzen duzuna?

Dena daukat gustuko: kolorea, erabateko aldaketak ...

- Eta gutxien?

Ezer ere ez, dena gustatzen zait.

- Nahiago duzu bezeroak zehaztea zer nahi duen, edo "egidazu nahi duzuna" esatea?

Nahi dudana egiteko esaten didatenean, badakit ez dela egia. Beti daude mugak, eta eskertzen dut muga horiek zehaztea.

- Jendea ausarta da ilearekin? Gaur egun mutil gazteak dira ausartenak: *krestak*, pikoak...

- Zer egiten duzu lanetik irtendakoan?

Saiatzen naiz buelta bat ematen, haizea hartzen, eta ortuan ematen dut denbora asko.

- Asteburuetan...

Mendira joaten naiz, zinera...

- Kirola praktikatzen duzu?

Ez, nire ordutegiarekin ez da erraza jardueraren batean ize-na ematea.

- Zer pelikula mota gustatzen zaizkizu?

Oso frikia naiz, eta Marveleko pelikula guztiak ikusi ditut.



Ermuan jaio zen duela 38 urte, eta bera baino nagusiagoa den neba bat du. Negozioa abiatu zuen Mallabian duela sei urte, eta bertan bizi da orain dela lau urte eta erdi. Iaz ezkondu zen.

- Ikusi duzun azkena...

Low, Netflixen.

- Musikazalea zara?

Bai, irratia daukat piztuta egun guztian, baina etxean nagoenean rocka edo heavy musika entzuten dut. Uztailean Metallicaren kontzertuan egon nintzen.

- Bidaiatzea gustatzen zaizu?

Bai, asko. Eztei-bidaian Mexikon egon nintzen, eta orain Peru eta Egiptora joatea gustatuko litzaidake, baina... denbora beha da horretarako.

- Telebista...

Oso gutxi. *Pasapalabra* ikusten dut oso noizean behin.

- Jateko...

Humusa. Nik neuk egiten dut etxean.

- Biziorik?

Erretzen dut. Ea lagatzen diodan...

- Bertute bat...

Nire ustez pazientzia handia daukat jendearekin.

- Eta akatsa...

Oso urduria naiz, eta haserre nagoenean, nahiz eta niretzako

gorde, asko nabaritzen zait: aurpegia aldatzen zait, ez dut hitz egiten...

- Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Ez naiz erraz haserretzen, baina ez zait batere gustatzen jendea puntuala ez izatea.

- Eta zerk eragiten dizu barrea?

Gauza askok. Giro onak eta jendea pozik ikusteak zoriontsu egiten naute.

- Eguneko momentua...

Lan guztiak bukatutakoan, sofan esertzen naizenean. Eta bakarrik banago, telekomandoa hartzean!

- Eta zure bizitzako egunik zorionsuena...

Ezkondu nintzen eguna, agian duela oso gutxi izan delako. Maite dudan jende guztia bildu nuen: ez gehiago ez gutxiago.

- Ondo moldatzen zara teknologia berriekin?

Momentuz bai.

- Hartu duzun erabakirik zailena?

Asko kostatu zitzaidan lan finkoa lagatzeko erabakia hartzea nire negozioa martxan jartzeko.

- Zer albiste irakurri nahiko zenuke?

Munduan dena ondo dagoela. Azkenaldian ematen du zoratu egin garela.

- Berriro jaioko bazina...

Seguruenik gauza dezente aldatuko nituzke, batez ere gaztetan egindako gauzak, hartutako erabakiak edo izandako jarrerak.

Dorleta Vidal



ZERMIK
SISTEMA ELEKTRONIKOEN GARAPENA
DESARROLLO DE SISTEMAS ELECTRONICOS
ELECTRONIC SYSTEM DEVELOPMENT



ZERMIK INGENIERIA S.L. mikrokontrolatzaile bidezko diseinu elektronikoak garatzen espezializatua dagoen ingeniari-tza-entresa da. Horrez gain, LabVIEW-ren bitartez sistema industrialen kontrola eta monitorizazioa bideratzeko gaitasuna ere badu.

www.zermik.com

Usaetxe plaza 6-8, behea
Arrasate-Mondragon (Gipuzkoa)
Telf: 943 23 10 12



TXALAPARTA
ABERNA

Eta asteburuetan pintxoak, afariak eta bokatak!

- Itsaskabra pudina.
- Txipiroiak.
- Piper beteak: okela edo ondoak.
- Fritoak: urdaiazpikoa edo ondoak.
- Redondo saltsan.
- Sagar tarta.
- Gazta tarta.
- Tortila patata...

Erdikokale 13 (Ermua) **ENKARGUAK 943 030 299**

MALLABIA 1952

Argazki hau 1952 ingurukoa da. Felix, Jose Luis eta Mariasun anai-arrebak Durangora joan ziren bere osaba-izebaren etxera, Durangon San Antolinak ospatzen baitziren eta barrakak jartzen zituzten. Gainera osaba-izebak kotxe berria ere erosita omen zeukaten eta hori estreinatu behar zuten.

Argazkian agertzen dira Mallabiko Goitondoko Josefa Astarloa eta Ermuko Felix Ormaetxea, Jose Luis Uriarte, Eibarko Txaltxanekoa (euren laguna), Mariasun Uriarte eta Felix Uriarte.



ERMUA 1951



Dioni Ardanzaren ikasleak honen jostundegi parean, Sallabenteko Bentan, jostunen Santa Luzia eguna ospatzen. Bertan daude ezkerretik eskumara tente Mari Carmen Esturo, Maritxu Elgezua, Marce Guridi, Pakita Azpíri, Dioni bera, Juanita Arana, Amaia Gorrotxategi, Maria Luisa Errementeria, Ana Mari Valdubieco, Andresa Ardanza eta Miren Iriondo. Erdian Pilar Bilbao, Maite Areitioaurtena, Mari Tere Izagirre, M^a Ignacia Olañeta eta Isabelita Orzaiz. Jesarrita, Polonia Ardanza eta Felisin López.



Drogeteniturre, 315 zk.

Caperos

Pintxoak • Razioak • Kaxolak • Plater konbinatuak • Ogitartekoak
 Probaleku z/g (Ermua) 699 292 043 • 636 549 154

**OSASUNA * ESTETIKA
EDERTASUNA**

Marfil

*Ile-apandegi bat
baino gehiago!!*

**Egokitutako burua
garbitzeko konketa**

943 17 28 09 • Goienkale 12

LAN BILA

Emakumea eskaintzen da pertsonak zaintzeko edo garbiketarako egiteko. Zaintzaile tituluarekin eta hamar urte baino gehiagoko esperientziarekin.
© 603 51 40 85

Ermuko neska euskalduna eskaintzen da umeak goizez zaintzeko. Esperientziarekin eta magistaritza ikasketekin.
© 648 62 52 09.

Neska gaztea, arduratsua eta esperientziaduna eskaintzen da pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko edo garbiketarako lanak ordura egiteko. Egunez zein interna bezala.
© 632 04 40 01

Neska eskaintzen da umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko, edo garbiketarako lanetarako. Esperientziarekin. Orduka, jardun erdia edo osoa. Berehala hasi naiteke lanean.
© 632 41 53 74



Urriaren 9an
Zorionak printzesa, jarraitu hain polita eta maitekorra izaten beti. Asko maite zaitugu. Musu asko aitita Jose eta amama Marceren partez.



Urriaren 29an
Zorionak etxeko sorgintxoari! 7 urte beteko dituela!!!! Asko maite zaitugu, maitxia!



Azaroaren 12an
Zorionak Maddi, ondo pasa zure egunean. Asko-asko maite zaitugu. Etxeko guztion partez patxo erraldoi bat.



Urriaren 31n
Zorionak Lander! Muxu pila etxekoan partez zure zortzigarren urtebetetzean.



Azaroaren 24an
Zorionak Mikel! Zorionak zuri! 5 urte gure etxeko gizontxoak! Familia guztiaren partez, oso ondo pasa eguna lagunekin eta etxekoekin!!



Azaroaren 8an
Zorionak Lucia!!! Sei urte bete dituzu! Asko maite zaitugu. Musu erraldoi bat Libe, amama, amatxo eta aitaxoren partez.



Azaroaren 10ean
Zorionak pitxin! Zure 9. urtebetetzean! Espero dogu egun politxa pasatzia eta asko disfrutatzea!! Ez utzi inoiz irribarre egiteari!



Azaroaren 20an
Zorionak Maialen!!! 6 urte haundi dagoeneko!! Ondo pasa eguna!!! Patxo erraldoi bat familia guztiaren partez!!!



Urriaren 28an
Zorionak Edertxo!!! Gure mutiko handia!! Urriaren 28an 9 urte beteko dituzu!!!! Musu asko izaro, aita eta amaren partez!!

Iragarkia edo zorion-agurra kaleratzeko, bidali mezu elektronikoa helbide honetara:
drogeten@gmail.com
Azken eguna: **Azaroaren 18a**



**TXINDURRI
TALDEA
Tokian
tokiko**



**ITSASKIAK
ARRAIN FRESKOAK
ETA IZOZTUAK**
Zubiaurre, 21
943 17 16 96
ERMUA

Komunitateak
San Pelayo
Aholkularitza juridikoa
Tel./Fax. 943 17 15 65 / 943 17 25 04
San Pelayo 6-A (Eroski gainean) 46 P.K. - Ermua

**NEREA IÑIGUEZ
HORTZ KLINIKA**
San Inazio 4 - Ermua
943 030 512 / niklinika@gmail.com

ALBOKA
MUSIKA
ESKOLA
Tel. 943 17 12 98 / 943 17 18 00 • albokamusikaeskola@hotmail.com

- Akordeoia
- Klarinetea
- Biolina
- Panderoa
- Biolontxelo
- Perkusioa
- Bonbardino
- Pianoa
- Flauta
- Saxofoia
- Kantua
- Trikitrixa
- Gitarra
- Tronboia
- Gitarra elektrikoa
- Tronpeta
- Gitarra baxua
- Txistua
- Lengoia musikala

ZINEA

Hilaren 5etik 7ra:
"Los renglones torcidos de Dios"
+ "El vasco"

Hilaren 12tik 14ra:
"Argentina 1985"
+ "Black is beltza"

Hilaren 19tik 21era:
"Mira cómo corren"
+ "Cédita"

Hilaren 26tik 28ra:
"Amsterdam"
+ "Los girasoles silvestres"
Ermua Antzokian.
Hainbat ordutegi.

ZINE-KLUBA

Hilak 3:
"La consagración de la primavera"

Hilak 10:
"Un año, una noche"

Hilak 17:
"Los 5 diablos"

Hilak 24:
"Moonage daydream"
Ermua Antzokian.
20:30ean.

UMEENTZAKO ZINEA

Hilak 6:
"El colegio de los animales mágicos"

Hilak 13:
"Hooper oilaskoerbia"

Hilak 20:
"Lilo, mi amigo el cocodrilo"

Hilak 27:
"Los buscamundos"
Ermua Antzokian.
17:00etan.

ANTZERKIA

Hilak 4:
"Kopaz kopa", Ados Teatroaren eskutik.
Ermua Antzokian.
20:30ean. Sarrera: 10 €.

Hilak 10:
Umorezko bakarriketak:
"Humor feminista para tu consumo", Belen Nevado eta Elsa Ruizen eskutik.
18:00etan.
Lobiano Kulturgunean.
Doan.

Hilak 11:
"Una noche sin luna", Juan Diego Bottoren eskutik.
20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15 €.

MUSIKA

Hilak 5:
Blues & Rock kontzertua: Rollin Black Dice.
20:00etan.
Lobiano Kulturgunean.
Sarrera: 10 €.

Hilak 18:
Musika ikukizuna:
"Kutsidazu bidea, Ixabel", Demode Produzioen eskutik. 20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 15 €.

Hilak 24:
Zezilia Deunaren kalejira.
18:30ean.
Liburutegiko patioan.

Hilak 25:
Zezilia Deunaren jaialdia. 20:30ean.
Ermua Antzokian.
Sarrera: 3 €.

ERAKUSK ETA

Hilaren 2tik 8ra:
Emakumeak museoan.
BBK artearen ibilbidea.
Martxoaren 8a plazan.

UMEENTZAKO EKITALDIAK

Hilak 4:
Jolasak. 16:30ean.
San Lorenzo ikastetxean.

Hilak 5:
Ipuin-kontaketa ingelesez.
17:30ean. Lobianon.

Hilak 19:
Ipuin-kontaketa. 17:30ean.
Lobiano Kulturgunean.

Hilak 28:
Antzerkia: "Eco", Ymedio Teatroaren eskutik.
17:00etan. Antzokian.
Sarrera: 4 €

BESTELAKOAK

Hilak 12:
San Martin Azoka.
11:00etatik aurrera. Plazan eta inguruko guneeetan.

Hilak 14:
Gaztañerre: Gaztainen banaketa eta musika giroa.
19:00etatik aurrera.


Hilak 19:
Magostos: Gaztainen banaketa eta musika giroa. 11:00etatik aurrera.
Galiziako zentroan.

Hilak 19:
Peña Athletic Herri Muga elkartearen 25 urteurrena:
hainbat ekitaldi.

Patxi López



CAPRI
PIZZERIA
943 03 33 15



Luis Cañas Cair
Amaren Cair
Ehun Txakoli Astobiza Pazo Señorans Cava Oriol Rossell

Cair Casar de Burbia Bodegas Valdemar García de Olano Manzanos Wines Pernord Ricard Wines Faustino García Martínez.

FAMILIA LUIS CAÑAS BODEGAS Y VINEROS

nitida

T.943176075

arral@arral97.com | Pol.Goitondo-Goikoa, Parc.7 - Pab.1 | 48269 Mallabia (Bizkaia)



RIF

ITURGINTZA KONPONKETAK

Marques de Valdespina 16
ERMUA
605 71 10 81 / 688 71 27 10



URRETA burdindenda

- ✕ Etxea
- ✕ Tresneria
- ✕ Brikolajea
- ✕ Errailak
- ✕ Giltzak
- ✕ Sarrailagintza
- ✕ Kit altzariak

Zeharkalea 8 Tel. 943 17 65 61 ERMUA


Iberikoetan espezialistak



VI Centenario 5 · ERMUA
943 172 412

GREMIOEN

GIDA



ITURGINTZA
ITURGINTZA, GAS ETA KALEFAKZIOA
LUIS VALLE

Bainugelen erakusketa
943 17 15 56
Tailerra
943 17 23 56
Goienkale z/g

ERROTULAZIOA
ROTEK
R Ó T U L O S
Argi errotuloak · 3D letrak · Ibilgailuak
Erakustokiak eta azokak · Formato handiak
Publizitate kanpainak · Led pantailak
943 17 00 36
www.rotekrotulos.com
ROTEK
LED PANTAILAK

PERTSIANAK
ORBE
TOLDOS Y PERSIANAS

- Toldoak
- Ostalaritzarako muntaiak
- Pertsianak
- Instalakuntzak eta konponketak
- Motorizazioa
- Manparak
- Segurtasun pertsianak
- Pertsiana dekoratiboak
- Estoreak
- Eltxo-sareak
Tailerra:
Zearreko Buelta 2
943 17 86 34 - 630 01 13 41
48260 Ermua (Bizkaia)
Erakusketa: Karabixa 1
48260 Ermua (Bizkaia)
943 17 98 60
persianasorbe@gmail.com

ETXETRESNAK

Egaña
ETXETRESNA ELEKTRIKOEN
SALMENTA ETA KONPONKETA
Diputazioa 7 (Ermua) · 943 17 66 08

ELEKTRIZITATEA

BETA
ARGIZTAPENA
ELEKTRIZITATEA
• **Proiektuak** • **Kalefakzioa**
• **Instalazioak** • **Gaueko tarifa**
• **Erreformak** • **Erradiadore elektrikoak**
Diputazio, 13 **943 17 65 25**
 689 23 31 71

ITURGINTZA
ITURGINTZA - GASA - BEROKUNTZA

PALACIOS SM
ENPRESA INSTALATZAILE BAIMENDUA
GREMIOEN KUDEAKETA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
San Pelayo 26, behea · Ermua (Bizkaia)
info@palaciosfontaneria.com
www.palaciosfontaneria.com
660 72 95 03 · 659 75 74 59 · 943 53 92 23

Gremioen Gidan publizitatea jarri nahi baduzu...
943 17 93 50 / 688 63 28 76 / drogeten@gmail.com

ERMUAN, XXXII. SAN MARTIN AZOKA



Euskal
Birusa
Elkarteak

AZAROAREN 12an
LARUNBATA

11:00

Plazan: Postuak, dantzak, saiheski-pintxoak eta taloak.

Santiago plazan: Artisauak.

Martxoaren 8a plazan: Abereen eta hegaztien erakusketa.

Herriko kaleetan barrena: Itsasi taldeko joaldunak.

Probalekun: Idi pareak.

San Martin plazan: Kulki umeentzako jolasak.

Komentukua kalean: Herri-kirolak.

Kaltxango plazan: Ikastetxeen postuak.

13:30

Sari banaketa postuz postu.

18:00


Luhartz erromeria plazan.

19:00

Kalejira Bizkaiko gaiteroekin.

19:00

Errifa zozketa, larraindantza
eta argazki lehiaketaren
sari banaketa plazan.



ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



MUSIKA ESKOLA



BABESLEAK



ERMUO LEHESKI
KULTURA
ELBARRA ETA
BERTUTASUN SALAK

